



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2018ko azaroak 8
Ordua: 09:00 – 09:50
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Miren Izaskun Perez Barragan
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez

Ez dira bertaratu: Maria Lorente Burgos, Alazne Lafragua Ureta, Unai Gotxi Kastrexana eta Joseba Elejalde Ribacoba, ez bertaratzearen arrazoia azaldu dutenak.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. Artziniegako Udaleko langileen soldataren igoera onartzea, 2018rako.

Alkatea: hasiera batean araudia aplikatzea da, Estatuko aurrekontu orokorretako legean aurreikusita dagoen moduan, 2018ko ekitaldirako. Akordioa irakurri du.

“ARTZINIEGAKO UDALEKO LANGILEEN SOLDATA-IGOERAREN AKORDIO-PROPOSAMENA 2018

KONTUAN IZANIK 2018ko uztailaren 4an 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legea argitaratu zela Estatuko Aldizkari Ofizialean.

KONTUAN IZANIK, Lege horretan, Hirugarren Izenburuan, Langileen Gastuari buruzkoan, 18. bi artikuluan, zera ezartzen dela:

“Bi. “2018. urtean sektore publikoko zerbitzura dauden langileen ordainsariek ezingo dute 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean ehuneko 1,5etik gorako igoera orokorrik jasan, bi alderaketa aldiatarako homogeneousotasun baldintzetan, ez langileei dagokienez, ez horien antzintasunari dagokionez.

Aurrekoaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) areagotzea prezio konstanteetan % 3,1era iritsiko balitz edo hori gaindituko balu 2017an, 2018ko uztailaren 1eko ondoreekin, ordainsarrietan % 0,25eko beste areagotze bat aplikatuko litzateke.

Atal honetan xedatutakoaren ondoretarako, BPGd-ren areagotzeari dagokionez, Espainiako Estatistika Institutuak (INE) argitaratutako urte bakoitzeko BPGd-ren estimazioaren aurrerapena aintzat hartuko da.



INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ondoren, eta 2018ko martxoaren 9an Segimendu Batzordeari enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko erabakiaren berri eman baino lehen, Ministro Kontseiluaren erabaki bidez onartuko da, hala badagokio, gehikuntza aplikatzea. Erabaki horren berri emango zaie autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioari.

Horrez gain, soldata-masaren % 0,2ko areagotze osagarria baimendu ahalko da, beste neurri batzuen artean, ekoizpena edo eraginkortasuna hobetzeko planak edo proiektuak ezartzeko, antzeko eginkizunak dituzten lanpostuen arteko berariazko osagarriak aztertze, lanpostu-mailako osagarriak homologatzeko edo pentsio-planekiko ekarpenak egiteko. Administrazioetan eta artikulua honetan definitutako sektore publikoaren menpeko gainerako erakundeetan, 2017 ekitaldian aurrekontuko superabit egoeran badaude, areagotze osagarri hori % 0,3koa izan ahalko da...”

IKUSI DA, aipatutako 18. artikulua bigarren atalaren arabera, Ministro Kontseiluak sektore publikoko langileen ordainsarrietan % 0,25eko gehikuntza osagarria aplikatzea onetsi duela. Hori horrela, Udalbatza Osoari proposatzen zaio erabaki hau hartzea:

Lehena.- Udaleko langileen 2018 ekitaldiko ordainsariak % 1,5 areagotzea, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldean, 2018ko urtarrilaren 1eko ondoreekin. Eta % 0,25eko soldata-gehikuntza osagarria aplikatzea, 2018ko uztailearen 1eko ondoreekin.

Bigarrena.- Aipatutako gehikuntzei aplika dakizkiekeen eta jaso ez diren atzeratutako zenbatekoak ordaintzea.

Hirugarrena.- % 0,2 edo % 0,3ko aurrekontu-superabitaren arabera gehikuntza osagarriari dagokionez, azterketa bat egitea 18.2 artikulua bosgarren paragrafoan aipatzen diren lege-formulak ezarri eta zenbateko horiek banatu ahal izateko.

Laugarrena.- Aurrekontu-aplikazioak areagotzeko egin behar diren aurrekontu-aldaketak egitea, erabaki honek dakartzan gastuak ordaindu ahal izateko.

Bosgarrena.-Erabaki honen berri ematea ordezkari sindikalari eta Udaleko Kontu Hartzailetza eta Diruzaintzari”.

Alkatea: beno, hori aplika daitekeen igoera aplikatzea da, Aurrekontu orokorren Legeak aplikatzea ahalbidetzen duena.

Bozkatu egin da.

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu alderditik (2);

2. Artziniegako Udalaren eta Barratxi Guraso Elkartearen arteko Hitzarmena onartzea.

Alkatea: hitzarmenaren testua duzue.

Ikusi da Artziniegako Udalaren eta Barratxi Ikasleen Guraso Elkartearen (IGE) arteko Lankidetzaren Hitzarmena.



KONTUAN IZANIK hitzarmen horretan Udalak konpromisoa hartzen duela Barratxi IGE elkarteari diru-laguntza bat emateko, kontzeptu ezberdinengatik, 2019ko ekitaldirako hurrengo aurrekontu-aplikazioak sortuta:

- 323.480.000 - Ekipamendu psikopedagogikoa. **6.376 €**
- 323.481.008 - Eskolaz aparteko Jarduerak. **7.114,6 €**
- 323.481.009 - Hartzaindegiko Teknikari espezialista. **11.125 €**
- 323 481010 Hartzaindegi Zerbitzua: **11.914,40 €**

KONTUAN IZANIK Hitzarmen horren indarraldia 2019ko urtarrilak 1 eta abenduak 31 bitartekoa izango dela.

KONTUAN HARTUTA 2019ko ekitaldirako aurrekontuan aurrekontu-aplikazioak Hitzarmenean ezarritako banaketara egokitu beharko direla, izaera nominatiboa izanik. Diru-laguntzaren justifikazioa aurrekontua egikaritzeko Arauaren 33. artikuluan eta hurrengoetan eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko 29. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren baitan geratuko dela.

Diru-laguntzen Lege Orokorreko 22.2. artikularen arabera, diru-laguntzak zuzenean eman daitezke, Aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusiak, horretarako sinatutako Hitzarmenetan jasotako baldintzetan, non diru-laguntza horretan aplikagarri den araudia arautzen baita.

Horregatik guztiagatik, Udalbatzari proposatzen zaio, bere eskuduntzen arabera, har dezala hurrengo **AKORDIOA**:

LEHENA.- Artziniegako Udalaren eta Barratxi IGE elkartearen arteko 2019ko ekitaldirako Lankidetzaren Hitzarmena onartzea, Arteko Gure Ama Ikastetxean burutzen diren zerbitzu eta jardueren finantzaketan kolaboratzeko xedea duena.

Barratxi IGE elkarteak bere urteko aurrekontua aurkeztu beharko du Udalean, diru-laguntzaren konturako entrega burutu aurretik Hitzarmenean ezarritako portzentajearen.

Honakoa da Lankidetzaren testua:

“ARTZINIEGAKO UDAL TXIT GORENAREN ETA ARTZINIEGAKO ARTEKO GURE AMA IKASTETXEKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEAREN (BARRATXI IGE) ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Artziniegan,(e)ko.....ren.....(e)an

ELKARTUAK

Alde batetik, Iñigo Gomez Unzueta jauna, 30.645.522-T NAN zenbakiaren jabea, Alkate-
Presidentea, Artziniegako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Beste alde batetik ...Jaun/andrea NAN zenbakiaren jabea,
“BARRATXI” IGE elkartearen presidente modura, helbidea kalean duena eta
IFK zenbakia duena:

Bi aldeek Hitzarmen hau sinatzeko legezko nahikoa ahalmen aitortuz, eta horien arabera



AZALTZEN DUTE

LEHENA.- Artziniegako Udalaren borondatea dela, berezko ezaugarriak kontuan izanik, Artziniegako Udalerriko Gurasoen elkartearekin batera udal zeregina elkarren artean kudeatzea ahalbidetzeko proiektuak sustatzea.

BIGARRENA.- “Barratxi” Gurasoen Elkarteak (aurrerantzean “Barratxi” IGE) interesa duela Artziniegako Udalarekin kolaboratzeko Arteko Gure Ama ikastetxeko prestakuntza-jardunaren osagarri izateaz gain ikasleen garapenerako jardun kultural eta sozialaren osagarri izango diren eskolaz aparteko jarduerak xede izango dituzten proiektuak abiarazteari dagokionez.

HIRUGARRENA.- Lankidetzaz honetan, Artziniegako Udalak “BARRATXI IGE” elkartearekin batera esku-hartzen duela lankidetzaz-esparruaren barnean, berezko baliabideekin, hitzarmen honetan aipatzen diren proiektu edo xedeetarako elkarren arteko finantzaketarik edo kanpoko finantzaketarik izan gabe, 2019. urterako gastuen aurrekontuan modu nominatiboan kontsignatutako aurrekontu-aplikazioen kargura

- 323.480.000 - Ekipamendu psikopedagogikoa. **6.376 €**
- 323.481.008 - Eskolaz aparteko Jarduerak. **7114,6 €**
- 323.481.009 - Haurtzaindegiko Teknikari espezialista. **11.125 €**
- 323 481010 Haurtzaindegi Zerbitzua: **11.914,40 €**

KLAUSULAK

LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA.- Hitzarmen honen xedea da hurrengoa:

1) Hezkuntza Sailak emandako zerbitzua indartzeko arreta psikopedagogikorako zerbitzuaren kontratazioa finantzatzea, helburutzat izanik ikastetxeko haurrekiko arreta, ikasgelan esku-hartuz eta familia nahiz irakasleei laguntza eskainiz.

2) Eskolaz aparteko jarduerak finantzatzea, betiere, Zentroko ikasle guztien onuran diren jarduerak izanik.

2) Haurtzaindegietan espezialista den Teknikari baten kontrataziotik eratorritako gastuak finantzatuko dira, bi urteko ikasgelan errefortzu modura jardungo duena

3) Haurtzaindegi zerbitzua: goizean, eskolak hasi aurretik, harrera-zerbitzua, ostegun arratsaldeko harrera-zerbitzua eta iraileko eta uztaileko harrera-zerbitzua ematetik eratorritako gastuak finantzatuko dira. Udalak gehienez finantzatzeko zenbatekoa zerbitzuaren kostu osoaren % 80ra artekoa izango da.

Elkarteak gutxienez kostuaren % 20 finantzatu beharko du onuradun diren pertsonen kuotekin edo Elkartearen berezko baliabideekin. Kuoten zenbatekoa % 20tik gorakoa baldin bada, Udalak diru-laguntza murriztuko du zati proportzionalean.

Diru-laguntzatik kanpo geratzen dira Elkartearen barne funtzionamendutik, jardueren publizitatetik, zehapenetatik eta errekaruetatik eratorritako gastu guztiak, eta baita Artziniegako Udaleko diru-laguntzak arautzeko Ordenantzako 2. artikuluan adierazitako guztiak.

BIGARRENA.- IRAUPENA.- Hitzarmen honen iraupena 2019ko urte naturalekoa izango da, 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitartean luzatuz, hedatuz aukerarik izan gabe.

HIRUGARRENA.- HITZARMENAREN GARAPENA, ALDEEN BETEBEHARRAK.- Hitzarmen honetan barneratzen diren jarduerak garatu ahal izateko aldeek indarraldian zehar hurrengo betebeharrak hartzeko konpromisoa hartzen dute:

A) ARTZINIEGAKO UDALAK, konpromiso hauek hartzen ditu:



1.- Jarraipen eta koordinaziorako bilkuretara bertaratzea emandako diru-laguntzaren arduraduen "BARRATXI IGE" elkartearekin batera.

2.- Diru-laguntza izaerako ekarpen ekonomikoak egitea aurrez adierazitako zenbatekora iritsi arte, langile espezializatuek emandako prestazioen garapena eta hitzarmen honen xedea eratzeko jarduerak partzialki ordaintzeko, gain-finantzaketarako aukerarik gabe, edozein kasutan erabiltzaileen kuotak deskontatuz.

B) Artziniegako Arteko Gure Ama Ikastetxeko BARRATXI IGE elkarteak, konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Hitzarmen honen xede diren jarduerak burutzea, onartutako proiektuak garatzea dutenak xede.

2.- Artziniegako udal barrutiaren barnean eragindako pertsonen ezagutzarako beharrezkoa den informazioa hedatzea.

3.- Eskolaz aparteko jarduerak garatzea, edo eskolako ordutegiz aparteko laguntza jarduerak.

4.- Udal espazio eta instalazioak erabiltzea, hitzarmen honetako xede diren jardueretarako soilik lagatzen direnak.

5.- Jardueren proiektu tekniko eta ekonomiko bat aurkeztea ikasturtearen hasieran, urteroko indarraldia duena, jarduera bakoitzean aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak zehaztuta, nahiz onartutako diru-laguntza nora bideratuko den justifikatzen duen azken memoria bat aurkeztea.

6.- Izendatutako udal ordezkariarekin jarraipen- eta ebaluazio-bilkurak deitu, programatu eta koordinatzea, hitzarmenaren xede diren jardueren jarraipen egokia burutu eta, era berean, horien ebaluazioa burutzeko helburuarekin.

7.- Programatutako jardueren garapen eta egikarizetik, Elkarteko kideen lanketa eta zereginak betetzetik nahiz burututako jarduerak garatzeko lagatutako instalazioen erabilera egokitik eratorritako ardurak hartzea.

LAUGARRENA.-EKARPEN EKONOMIKOA ORDAINTZEA.- Hitzarmen honen bidez onartutako kopurua ordainketa hau egindako ordainduko da:

% 60 urtearen hasieran, behin 2018. urteari dagokion azken justifikazioa aurkeztuta. % 60 hori konturako entrega modura hartuko da eta uztailearen 31 baino lehen justifikatu beharko da, behin ikasturtea amaitu ondotik.

% 40 ikasturtearen hasieran, ikasleen eta "Barratxi IGE" elkartearen jarduerak, kostuak eta partizipazioak edo ikasturtean zehar gauzatuko diren bestelako diru-laguntza aurreikuspenak banakatzeko memoria aurkeztu ondotik. Kopuru hori konturako entrega modura hartuko da eta 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen justifikatu beharko da.

BOSGARRENA.- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIN.-

Diru-laguntza horiek bateragarri izango dira xede berdinarekin emandako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein Administrazio edo erakundetik, publiko nahiz pribatutik, eratorriak.

Diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du, inolaz ere, izan diruz lagundutako jardueraren kostu osoa gainditu, ez zenbateko bakarrean edo bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk gaineratuta.

Kasu horretan, udal diru-laguntza murriztu egingo da diruz lagundutako xedera bideratutako zenbatekoa erakusten duen portzentaje berean, gain-finantzaketarako aukerarik izan gabe.

SEIGARRENA.- EMANDAKO KOPURUEN JUSTIFIKAZIOA.-



1.- Emandako kopuruak azaroaren 17ko 38/2003 Legean, Diru-laguntzen Lege Orokorrean eta Udal Aurrekontuak Egikaritzeko Oinarrietan ezarritakoaren arabera egingo dira, Hitzarmen honetan eta klausula honetan aurreikusitako eta barneratutako manu zehatzak ere betez.

2.- Justifikazioa diruz laguntzeko jarduerak burutzeko epea amaitu ondorengo hurrengo bi hilabeteen barnean egin beharko da, epe hori luzatzeko aukerarik gabe. Epe hori betetzen ez bada diru-laguntza ez dela justifikatu ulertuko da eta hura itzuli egingo da Diru Bilketako Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako bideak erabiliz, bakoitzaren borondatez itzulketa egin ez bada.

3.- Helarazitako egiaztagiria faktura izaera izan beharko dute, fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan aurreikusitako formalitateekin. Horietan horien ordainketa justifikatzeko agiriak adierazi beharko dira, edo ordainketa hori egiaztatzeko dokumentuak gaineratu beharko dira.

4.- Hitzarmen honetan aipatzen diren zerbitzu profesionalak eman edo jarduera burutzearekin zuzenean lotutako egiaztagiria onartuko dira soilik. Horrenbestez, ez dira onartuko otordu, ospakizun, elikagai eta antzeko beste batzuekin lotutako justifikazioak, Hitzarmenaren xedea betetzearekin zerikusirik ez dutenak.

5.- Gastuak bat etorri beharko dira eta jardueren Memoriaren barnean zerrendatu beharko dira, ikasturte bakoitzaren hastapenean aurkeztu beharko dena.

6.- Justifikazioa Udala Erregistro Orokorrean abiatutako instantzia bidez aurkeztuko da Elkartearen ordezkari den pertsonaren eskutik, hura behar bezala egiaztatuz, egiaztagirien originalak eta kopiak gaineratuz, eta baita Hitzarmenaren xede diren jarduerak burutzeko Memoria jasoz ere.

ZAZPIGARRENA.- ZERGA BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAKOAK BETETA IZATEAREN EGIAZTAGIRIA.-

“BARRATXI IGE” Elkarteak 38/2003 Legean, diru-laguntzen Lege orokorrean, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan nahiz Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bateginean aurreikusitakoaren arabera Ogasun Publikoarekiko zerga betebeharrak ordaindu izanaren betebeharra aurkeztu beharko du, Artziniegako Udalarekikoak eta Gizarte Segurantzarekikoak barne. Horretarako, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, aipatu erakundeek igorrita, diru-laguntza izapidetu edo hitzarmen hau sinatu eta hiru hilabetera goizenez.

ZORTZIGARRENA.- EZ BETETZETIK ERATORRITAKO ONDORIOAK.-

Hitzarmen honetan ezarritako betekizunak betetzen ez badira diruz lagundutako Erakundeak jasotako funtsak itzuli egin beharko dira derrigorrez, eta ezingo da beste funtsik jaso aurrez modu desegokian jasotakoak itzuli bitartean.

BEDERATZIGARRENA.- IKUSKAPENA ETA KONTROLA.-

Diruz lagundutako Erakundeak indarreko araudian egiaztapen eta kontrolerako aurreikusitako esku-hartzeak burutu behar ditu ezinbestean, eta baita Artziniegako Udaleko Kontu-hartzailetzak burututako edozein zerga jardun ere.

HAMARGARRENA.- HITZARMENA AMAITZEA.-

Hitzarmen honetako hizpaketak betetzen ez badira, esku-hartzen duen edozein aldeak aukera izango du hura eteteko, ondorio hauekin:

- Finantzazioaren galera.
- Ordaindutako kopurua itzultzeko eskaera.

HAMAIKAGARRENA.- ERANSKINAK.-



Onartutako diru-laguntzak arautzeko hitzarmen honen garapenean jarraian deskribatzen diren Eranskinak gaineratzen dira:

- I. eranskina- Programak burutu izana justifikatu eta azaltzeko azken memoria.
- II. eranskina – Fakturen egiaztapena. Betekizunak.
- III. eranskina- Finantza erakundearen datuak, Diru-laguntza ordaintzearen ondorioetarako.

UDALAK
ALKATEA

ELKARTEAK

PRESIDENTEA

Sinatuta: _____

Sin.: _____

I. ERANSKINA

PROGRAMA BURUTU IZANA JUSTIFIKATU ETA AZALTZEKO AZKEN MEMORIA

Diruz lagundutako (diru-laguntza ematen den urtea gaindituko ez duena) programa bakoitzaren justifikazioarekin batera programa burutu izana justifikatu eta azaltzeko dagokion azken memoria gaineratu beharko da. Bertan burututako jarduerak, horien kostua eta emandako gastuen egiaztagiriekin duten harreman zuzena zehaztu beharko da, xehetasun osoz.

Honatz memoria bakoitzeko gutxieneko edukiak:

1. Erakundearen datu osoak.
2. Proiektuaren izena.
3. Haren deskribapena.
4. Egikaritze-epea
5. Burututako esku-hartzeak, horien kostuak eta jarduera bakoitzerako helarazitako fakturen deskribapena zehaztuta.
6. Proiektuan aurreikusitako helburuak eta eskuratutako emaitzak.
7. Ondorioak.

Memoria bakoitzarekin batera programako jarduerak hedatzeko erabilitako materialak eta haiek burutzean sortutako dokumentazioa gaineratu beharko da.

II. ERANSKINA

Justifikazioa behar bezala egiaztatuta beharko da, ordainagiriaren originalak eta kopiak gaineratuta.

Fakturrek hurrengo betekizunak bete beharko dituzte:

faktura-zenbakia.

igortzailea identifikatzeko datuak (izen-abizenak, izendapena edo izen soziala, IFZ eta helbidea).

hartzailea identifikatzeko datuak, diruz lagundutako erakundea izan beharko dena.

eragiketaren xehetasunezko deskribapena eta unitate-prezioa eta haren kontraprestazio osoa. Dagokion BEZ zerga islatu beharko da, kuota prezioaren barnean jasanarazten denean "BEZ barne" adierazi beharko da, edo BEZ zerga salbuetsita adiera.

igorpenaren lekua eta data (**puntu honetan igorpen-data diru-laguntza arautzeko arauetan ezarritako epearen barnean egotea eskatuko da.**)

halaber, fakturan hartu-agiria agertzea eskatuko da (haren igorlea denaren sinadura eta zigilua) edo ordainagiria.



Ordainagiria agertzeko "ORDAINDUTA" adierazi beharko da, establezimenduaren edo igorlearen zigilua eta sinadura fakturan bertan adierazita, 2.500 eurora arteko eskudiruzko ordainketen kasuan. 2.500 eurotik gorako kopuruetarako ordainketa egiaztatuko da, zerga iruzurraren prebentzioari buruzko urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, banku-transferentzia bidez edo antzeko izaera duen merkataritza-dokumentu bidez. Aurrekoarekin bat etorriz, ez dira diru-laguntzaren baliozko egiaztagiriri modura hartuko ordainketa egokiro egiaztatzen ez dutenak".

gastu txikien kasuan, (garraioa, materiala, etab.) erakundearen ordezkariaren ziurtagiri bat gaineratu beharko da, gastu horiek jardueren programazioarekin edo elkartearen premiekin duten lotura justifikatuz.

Aurkeztutako fakturekin batera dokumentu elektronikoa bat gaineratu beharko da, formatu irekian (Word), bertan haiek zerrendatuz eta eremu hauek izango dituen:

° Faktura Faktura-data Erakunde Igorlea Kontzeptua IFZ/IFK Zenbatekoa

III. ERANSKINA

BANKU-ERAKUNDEAREN BANKU-DATUAK

FINANTZA ERAKUNDEAREN DATUAK, DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEAREN ONDORIOETARAKO

Banku-erakundearen izena

Helbidea

Erakundearen kodea

Bulego sukurtsala

Kontuaren

D.C.N

Kontuaren titularrak

IzenaNAN.....

IzenaNAN.....

IzenaNAN.....

Artziniegan, 2018ko.....ren.....(e)an

BIGARRENA.- Alkatetzari eskumena ematea akordio hau gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazio oro sina dezan".

Alkatea: Puntu honetan argitzea, hitzarmenak 2019ko indarraldia izango lukeela, 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, eta diru-laguntzen erregularizazioen barnean hau diru-laguntza nominatibo bat da, orduan diru-laguntza nominatibo honen onarpena arautzen duen hitzarmena onartzea izango litzateke kontua. Zer edo zer aipatu nahi baduzue.

Bozkatu egin da.

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu alderditik (2);



3. 2018ko ekitaldiko hirugarren hiruhilekoko egikaritze-aurrekontuaren berri ematea.

Alkatea: ezer galdetu nahi baduzue.

Joseba Vivanco Retes: nik pare bat gauza. Batetik, ikusten dugu garapenerako kooperaziorako partidak momentuz hor jarraitzen duela, ez dela deus ukitu, ez dakit hor planteamendurik egingo den...

Alkatea: bai, begira, iaz bezala, nik uste dut azkenean proposatzen diren proiektuak ongi erantzuten duten proiektuak direla, Benjarekin izan nintzen. Galdetu nion ea Ekuadorrekoarekin jarraituko ote genuen eta esan zidan agian hobeto izango zela Uganda. Uganda ez, barkatu Angola. Orduan harekin hitz egiten aritu naiz eta denbora emateko esan ditu, izan ere, proiekturako dokumentazioa ez diote osorik aurkeztu oraindik. Iristen baldin bagara bikain, eta ikusten badugu Angolako proiektua iristen ez dela alternatiba bat bila dezakegu. GKE batera ekarpena egitea, edo EuskalFondoa delakora ekarpena egitea, edo aurten ez egitea eta hurrengo urtean aurtengoa gehi 2019. urterako duguna bideratzea Benjak proposatzen digun proiekturako.

Joseba Vivanco Retes: eta gero beste bat, aurrekontu-proiektuaren inbertsioen barnean, azkenean urtea amaitzen ari da eta hor geratuko baita, hodiak berritzeko proiektuaren gaia zegoen. Zeuden partiden barnean proiektuaren idazketa zegoen, jakina proiektua, aurten dagoeneko ez da proiektua egingo, obra are gutxiago noski, baina jakina, datorren urterako geratzen da, orduan kontua da, nik ez dakit obra horrek zein iraupen izango duen, tamaina handiko obra bat baita... noski, izan ere, proiektua atera behar da, proiektua esleitu egin behar da, eta ondoren obra dago, eta hori guztiori 2019. urtearen barnean egin beharko da hasiera batean.

Alkatea: ez, ez derrigorrez. 2020. urtera ere joan daiteke.

Joseba Vivanco Retes: 2020ra?

Alkatea: bai.

Ascension Hormazabal Meabe: baina proiektuarena urte honetara joan daiteke, izan ere, nik pleguak prest ditut. Orduan pleguen kontratazioa ateratzeko nik kontsignazioa egin behar dut. Proiektuaren zatia aurten egingo da, proiektuaren idazketari dagokiona.

Joseba Vivanco Retes: Geratzen den hilean? Ateratzea...

Ascension Hormazabal Meabe: nik pleguak eginda ditut, kontua da onartzea...

Joseba Vivanco Retes: ez, ez, hori zen galdera, izan ere, jakina obra ez da egingo eta pentsatzen dut hilabetetan luzatuko den obra bat dela, obra garrantzitsua baita, baina noski, kontua da proiektua era berean...

Ascension Hormazabal Meabe: pentsatzen dut obrak luze joko duela eta tamaina handikoa da. Baina proiektuari dagokionez esaten dizut, pleguak badituz.

Joseba Vivanco Retes: batez ere zen jakiteko proiektua martxan ote zegoen edo azken batean 2019. urterako geratzen den hori ere, izan ere, ez dakit, zuk Iñigo 2020. urtea aipatu duzu, pentsatzen dut epearen amaiera 2019. urtean izango litzatekeela. Beste gauza bat da gero Aldundiak luzapen bat ematea amaitzen joan zaitez.

Alkatea: bai, luzapena eskatu dugu dagoeneko proiektua aurkezteko. Izan ere, hain zuzen kasu honetan lizitazio-prozesu batera joan behar gara, ezin da beste bi proiektuen moduan egin, kontratu txikiak baitziren, azkenean zuzenean egin baitugu, baina honetan ireki batera joan beharko ginatke jadanik.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu alderditik (2);

4. Hirugarren hiruhilekoko ordaintzeko batez besteko epearen berri ematea.



Alkatea: 21 egun. Hemen atzerapen bat izan dugu. Nagusiki luminariak ordaintzeko faktura izan da, hor atzerapen bat egon da. Lehen ziurtapena ekainean aurkeztu zuten eta orain ordaindu da. Eta horrek eragin du atzerapena.

Berataratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu alderditik (2);

5. Alkatetza-ebazpenen berri ematea.

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 197 eta 229 bitarteko dekretuen berri eman du.

Alkatea: ikusiko duzunez orain formatua apur bat, ez, nahiko arraroa dute, izan ere, Aldundiaren programa berria txertatuta, orain dekretuak elektronikoki sinatzen dira. Barra-kodea eta hor dagoen guztia, baliozkotzeko kodea, hori da sinadura. Eta tira, orain kostatzen ari zaigu, baina espero dugu martxa hartu eta hobeto funtzionatu ahal izatea. Zerbait esan nahi baduzue.

Joseba Vivanco Retes: bitxikeria bat besterik ez, ebazpenetan zetorrena. Arrakadak erosteko partida bat, hori, zertara?

Alkatea: basozainak iradoki digu, mendi publikoan larrea baimentzeko, jakin ahal izateko, egiaz larrean ibil daitekeen azienda kontrolatu ahal izateko, azienda deklaratzeko duten pertsonen arrakada bat entregatzen zaie. Identifikatzeko arrakada bat. Modu horretan baimenik duen ala ez jakin dezakegu egiaz.

Joseba Vivanco Retes: hala pentsatzen nuen, baina uste nuen hori Aldundiaren gauza izango zela, mendiena, edo abeltzaintza kontua... kontua izango zela haiek hori ipintzea, edo erostea... ez dakit.

Alkatea: bai, badakizue iaz izan zela azienda deklaratu zuten lehen urtea eta Aldundiak ezartzen duen tasa ordaindu zutela, azienda deklaratzeko, horrekin guk egiten duguna hobekuntza funtsa areagotzea da ondoren mendien mantenuan edo hobekuntzetan inbertitzeko, mendian azienda egon dadin, egin dugun hesiaren kontua, konpondu diren zenbait bide, pasabide kanadarrak, Peñalba mendian edanlekua esleitu dugu, lehen zegoen edanlekua berreskuratzea, azizendak izan dezan bertan larrean ibiltzeko gune bat, edan ahal izateko eta, beno, mendian egon daitezkeen beharrezkoak diren bermeekin. Guri, nire ustez, udalerrri modura, mendian azienda egotea interesatzen zaigu, mendia garbitu eta mantendu egiten dutelako, baina jakina horrek kontrako alde bat ere badu, mendiak itxita egon behar dira, pasabideak egokiak izan behar dira azizendak ihes egin ez dezan, ura edateko guneak izan behar dituzte, eta hori da. Horren harira, basozainak aurten iradoki digu Gorobel Mendilerroan egiten den moduan, Gorobel Mendilerroan ere gauza bera egiten baita, azienda deklaratzeko denean arrakadak ematen zaizkie azizendari ipintzeko.

Berataratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu alderditik (2);

6. Udal kudeaketaren kontrola.

- Alkatea: nik apur bat gaur aipatu dena, eta aurreko osoko bilkuran aipatu genuena, egia da plegu ugari ditugula ikusteke, atera beharrean gaudenak, eta horiek irteera eman behar diegula. SR-1 zonaldearena dugu, hodiarena dugu, igerilekuen proiektua dugu, bideen inbentarioaren proiektua ere badugu, Plan Orokorra eta Barratxiko bidea balioak jartzearena. Horiek dira ditugunak. Hor aitortzen dut pilaketa bat dugula, gauzak lehenetsi eta irteera ematen joan beharko gara. Badira diru-laguntzen baitan dauden batzuk, beste batzuk ez, eta beno, ondoren SR-1 zonaldearena egia esatera ia 20 urte daramagu arazo horrekin, eta uste dut gu ere lehenbailehen konpontzen saiatu behar garela. Azken osoko bilkuran esan nuen, hala dela, zirriborro bat zegoela egina, hori zerbitzu juridikoekin testatu behar zela, zerbitzu



juridikoek zalantzaren bat zuten obraren zuzendaritzari dagokionez, obrako zuzendaritza emateko betebeharrarekin lotuta, ea lehenbailehen atera ahal dezakegun.

Eta ondoren Axperen gaiaren inguruan ere galdetu zen, eta beno, Axpen dagoeneko hitz egin da Ertzaintzarekin. Badira autoek traba egiten dutela dioten auzotarrak, badira beste batzuk trabarik egiten ez dutela diotenak, baina gaur egun duguna da hor ezin dela aparkatu. Orduan Ertzaintza igarotzen ari da eta egoera kontrolatzen ari da. Auzotarrek esaten duten moduan aparkatzean traba eragiten ez badute, haiek izan beharko dira zirkulazioa aldatu edo aparkamenduen araubidea aldatzeko eskatu beharko dutenak, aparkatzeak baimen ditzatela, baina gaur egun ezin da aparkatu.

- Joseba Vivanco Retes: esaten duzun azken horren harira apur bat, azken batean nik uste dut, izan ere, azken batean badirudi gai horretan, joan den osoko bilkuran hitz egin zen, badirudi balantza berean ipintzen direla kanpoan aparkatuta dauden autoek trabarik eragiten ez dutela dioten auzotarrak, etxeen ataurrean aparkatu arren, eta beste batzuk baietz esaten dute. Ez dago halako balantzarik, izan ere, azken batean, aparkatu daiteke ala ezin daiteke aparkatu.

Alkatea: ez dago, ezin daitekeelako aparkatu.

Joseba Vivanco Retes: jakina. Orduan esan nahi dudana da, nahiz eta 20 auzotarrek esan "ez, ez, moldatzen gara autoak kanpoan utziz, bakoitzak nahi duen lekuan". Nahikoa da auzotar batek esatea "bada niri ez zait ongi iruditzen", gainera hori ezin baita egin, tira, azkenean arrazioa berea da. Hor zuria ala beltza ere ez da.

Alkatea: ez, ez, ezin da aparkatu eta kito. Oraintxe bertan ez dago besterik. Beste gauza bat da hortik aurrera araubidea aldatzeko iradokizun bat egitea, eta beno, zonalde batzuetan gaitu daiteke aparkatzeko zonalderen bat, beno, hori aztertuko da, baina hori da dagoena.

- Joseba Vivanco Retes: gero, azkenean, pleguen gaiarekin, sei plegu aipatu dituzu, ez dakit sei plegu horiek urtea amaitu aurretik egon daitezkeen. Pentsatzen dut bat igerilekuena izango dela.

Alkatea: hori izango da bat, hala behar du izan. Hodiaren proiektua idazteko plegua. SR-1 zonaldearen plegua. Ondoren Plan Orokorrekoari dagokionez, ez dakit Aldundiak dagoeneko helarazi digun eredu eguneratua.

Ascension Hormazabal Meabe: ez, ez baitiet eskatu. Esan zidan egiten jartzen naizen unean eskatzeko etengabe aldatetak egiten ari baitira.

Joseba Vivanco Retes: baina, horrekin aurkeztu zen errekurtsuaren gaia daukagu... edo hori konpondu da?

Ascension Hormazabal Meabe: konponduta dago, harekin bilkura bat izan genuen eta, eta ez zuela aurrera jarraitu behar esan zigun. Idatziz ezer ez, baina esan egin zigun.

Alkatea: eta ondoren beno, badira beste zenbait, esate baterako, Barraxiko biderako lehiaketarena, non beno, hor zenbait zalantza ditugun planteatzeko moduari buruz. Bada plegu-eredu bat, baina legez "janzte" aldera, nola egin ikusteko, zalantzak daude.

Joseba Vivanco Retes: SR-1 zonaldekoari dagokionez, obretako plegua atera behar da. Izango litzateke obretako plegua ateratzea, esleitzea, beraz hori izango da...

Arkaitz San Jose Martinez: 2019rako guztia. Izan ere, pleguak orain atera arren, gastua...

Alkatea: bada, has gaitezke, bai, oso garaiz jota ere 2019ko amaieran hasi ahal izateko.

Ascension Hormazabal Meabe: ez, pleguak izango bagenitu onartu ahal izateko, aurrekontuaren kontsignazioa izan behar dugu onartzeko orduan; 2018. urtearen amaieran gaudenez, 2019an egikarrituko da, eta 2019ko aurrekontu berrira gaineratu beharko dira lizitatzen hasitako lan horiek guztiak, baina onartzea behar da.

Joseba Vivanco Retes: onartu eta ateratzea behar da. Hemen, espaloien kontuarekin zerbait sartzen al zen? Hemen ez zen ezer sartzen. Izan ere, azken batean kexatzen jarraitzen dute esanez espalo horiek, batez ere malkartsuak daudenak, direla...

Alkatea: ez, ez, esku-hartze orokor bat espaloietan ez, ez dago espaloien berrikuntza erabateko bat. Batzuetan esku-hartzen baldin bada.

Joseba Vivanco Retes: ez, baina esan nahi dut azken batean... konpontzera joaten bagara ere...



Alkatea: bai, irisgarritasunean bai, batzuetan bai, esku-hartzen da.

Joseba Vivanco Retes: baina konponketak egin eta partidan dagoen dirua xahutzen bada ere, kontua da espaloi horietan irrist egiten dutela duten zikinkeriatatik, bertan sortutako lirdingatik edo duten zoladuragatik edo desnibelagatik, berdin da, desnibelik egon ez arren ere irrist egiten dute, azken batean arazoa hor egongo da. Nik ez dakit zerbitzu teknikoetatik, espaloiak osorik aldatzea ez den irtenbide motaren bat begiratzea. Irtenbide motaren bat ote dagoen, ez dakit. Nik badakit, esate baterako, goialdean, etxeetako bik udan egin zutena, han nenbilen eta erakutsi egin baitzidaten, ur zurrusta bota zuten espaloian eta guztia belztu zen, lirdinga hori guztiori kendu egin zen. Zuri zeuden, besteak beltz zeuden bitartean. Nik ez dakit presio mahuka batekin pasatzea izan daitekeen egokia urbanizazio horretako espaloian. Baina esan nahi dudana da hori gutxi gorabehera hobetzeko irtenbide bideragarriren bat baldin badago, edo hemen geratuko den gai bat den, eta asko kexatu arren, edo norbaitek danbatekoa hartzen baldin badu, bada ez dago beste ezer egiteko.

Alkatea: bada ez dakit.

Joseba Vivanco Retes: haiek etortzen direnean "aizu hau konponiezadazu", Udalak ere izan dezala argudio bat esateko "aizu, begira, konponbidea espaloi guztiak berriro altxatzea da, edo begira, badira tarteko irtenbideak, begiratu egingo direnak, x, x, x"

Alkatea: erdiko kalean aplikatu genuen irtenbideak ez du balio, izan ere, ematen den produktu horrek harrian balio du, baina ez hormigoian. Izan ere, Zubiaurreko kantoian botatzea ere pentsatu genuen, baina ez zuela balio esan zuten. Orduan nik uste dut hor konponbide gutxi dagoela, hori ez bada.

Ascension Hormazabal Meabe: Eta garbiketarekin aski da?

Joseba Vivanco Retes: ez dakit. Nik dakidana da hor justu bi etxe daudela, parekoa, goigoian, eta espaloia nabaritu egiten da, espaloia zuri baitago, eta gainerakoa beltza da. Esan zidaten presio ura bota eta kendu egin zutela. Ez dakit irtenbide bat ote den, mantso joatea, mantso joatea urbanizazio hartan gauza bera eginez, ez dut ideari ere. Baina agian zerbitzu teknikoek esaten dute gutxienez hori dela, bestea hau baita. Esan nahi dudana da, argudio bat izateko, izan ere, azkenean jendeak esan dezake "aizu, egunaren amaieran norbaitek irrist egin eta ez dakit zer apurtu du, hona etorri eta irentsarazi egiten dizu" eta Udalaririk ziria sartzen dio.

Alkatea: bai, espaloia ez da kalitate onenekoa.

Joseba Vivanco Retes: ez, eta gero pilatu den zikinkeria hori guztiori dauka, eta egiten doan lirdinga, eta dituzun oinetakoen arabera, irrist egiten du, eta asko. Orduan gutxienez, baldin badago, irtenbideren bat izatea.

Alkatea: obra horretan jasotzen dena, plegu horretan, atxikitako etxeen kutxatilaren konponketa da. Hori bai, hor sartuta dago.

Joseba Vivanco Retes: jakina, hori beste bat da, negura iristen gara, eta bat-batean euria egiten baldin badu, berriro ere arazoa gainean.

- Joseba Vivanco Retes: beno, gaia gogora ekartzea, Unaiak oroitarazi ohi duen zer bait da, eta azken batean Barrenkalen zaudenean nabaritu egiten duzu, estolden gaia. Nik ez dakit azken finean langileen agendarekin lotutako arazoa den, lanketa hori duenarena baina tira, baina hura ordea, igarotzen diren bakoitzean...

Alkatea: bai, agendan daukate. Burutzeke lan modura daukate.

Joseba Vivanco Retes: nik uste dut azken batean arazo bat dagoela, eta Barrenkalen, Ostargin edo inguruan, dagoen jendeak, argiro ikusten du, batez ere eserita baldin badago, eta nik zalantzak ditut arazoa estoldek zarata ateratzen dutela ote den, izan ere, jendea autoekin Batzokitik Ostargira espaloitik etortzen da- Halaxe da, espaloia gainetik dator, izan ere, Ostargin eserita zaude eta autoa datorrela ikusten duzu, eta bost edo hamar metro lehenago alboratzen da, eta esaten duzu, morroi hori despistatzen da edo zerbaitek erasaten du hemen pilotalekuko plazan bati gertatu zitzaion moduan, eta guztiak aurretik eramango ditu. Orduan, ez dut uste zarata kontua denik arazoa, baizik eta harri-zolarena gehiago, esaten dute ez, espaloitik noa eta hala ez naiz joango pan, pan, pan. Baina tira, estolden kontuarekin, formularen bat baldin badago zaratarik ez ateratzeko goma motaren bat ipintzeko, egia esateko, traba dezente sortzen du.



- Joseba Vivanco Retes: gero Geltoki Plazako ispiluaren kontua dago, kokatuta dagoen moduan Zubiaurretik igarotzen zarenean zure burua ikusten duzu, zure autoa, eta ez duzu alboetara ikusten, hala baitago, nik ez dakit zerbaitek mugitu duen edo arrazoiren batengatik mugitu den eta azken batean zure burua ikusten duzu baina ez alboetatik norbait ote datorren, eta pentsatzen dut izango dela, ez dakit...

- Joseba Vivanco Retes: nik ez dakit pinuen gaiarekin zerbait aurreratu den, basozaina dagoeneko hemen izan den ikusteko, hara-hona,... Aldundiaren aldetik ezer adierazi ote den... berritasunik baden.

Alkatea: ez, ez dago inolako berritasunik. Basozainak adierazi didan azken kontua da hona oraindik ez dela iritsi, baina uneren batean iritsiko da eta tratamendu bat egingo dutela hiru Aldundiak koordinatuta, funtzionatzen ote duen ikusteko. Tratamendu bat kobre bidez, tomatearen berdina. Baina hegazkinez.

Joseba Vivanco Retes: beno bai, gero eztabaidatuko dugu fumigatu edo ez fumigatzearen kontua edo... pinu-beldarraren kasuan ezin baldin bazen, orain zer eta onddo honen kasuan egin daiteke. Baina tira, hori beste kontu bat izango da.

- Joseba Vivanco Retes: eta ondoren, azkenik, Museoak aurkeztu duen fundazioaren estatutuen gaia, osoko bilkuran eztabaida zedin, beno, esan zenigun astelehenean bilkura bat izango dugula gaiaren inguruan hitz egiteko. Bakarrik jakitea Idazkaritzak txostenen bat egingo ote duen ere bai, aholkularitza juridikoaz aparte, Idazkaritzak ere txosten bat egingo ote duen ala ez gai horrekin lotuta.

Alkatea: Zu Ascen datorren egunean ere izango zara bilkuran?

Joseba Vivanco Retes: bai, baina esan nahi dut, txostena egingo den ala ez, izan ere, azken batean... Pentsatzen dut txostena Idazkaritzakoa izango dela.

Ascension Hormazabal Meabe: dagoeneko irakurri duzu Aholkularitzaren txostena eta nirea berdina izango da, legea berdina da eta...

Joseba Vivanco Retes: pentsatzen dut txosten bat egiteko Idazkaritzak egingo duela.

Alkatea: egin behar dugunak, Ascenen oniritzia eskatzen du.

Joseba Vivanco Retes: bai, horregatik, esan nahi dut azkenean txostena Aholkularitza Juridikoari eskatzen zaiola, dirua kostatzen zaigun txosten bat, hasiera batean Idazkaritza denean txostena egin behar duena. Hots, astelehenean bilkura batera joan behar bagara Aholkularitza juridikoaren txosten batekin, tira, guri interesatzen zaiguna Idazkaritzaren txostena izatea da.

Ascension Hormazabal Meabe: nik uste dut astelehenerako ezetz.

Joseba Vivanco Retes: ados, bada hori, horretara doa nire planteamendua, nire galdekizuna. Azkenean bikoizten ari gara, eta gainera txosten bat ordainduz.

Alkatea: gai honetan bikoiztu baino gehiago koordinatu da egiten dena nire ustez.

Ascension Hormazabal Meabe: nik babes bat ere behar dut.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina txostena ez da zurea.

Arkaitz San Jose Martinez: nik horri gaineratuko nioke, posible bada, bilkurara joan aurretik txosten hori izatea. Kontsulta egiteko. Ahal dela ez dadila izan bilkurara joan eta txostena orduan aurkeztea guri, izan ere, noski, hori kontsultatu gabe...

Alkatea: bilkuran ez dugu hainbeste txosten bat izango, baizik eta Estatutuen balioespen bat, ikus daitezkeen kontuak, eta ni eskatuko nizueke talde modura Estatutu horiekiko zein ideia ditugun, aldaketarako ideiak, eta ikustea ea moldatu dezakegun ulermen bat izan eta baterako iritzi bat izateko, araudiarekin bat datorrena.

Joseba Vivanco Retes: guk argi dugu gauza bat dela Arteak aurkezten duen dokumentu horren ganean bakoitzak egin dezakeen balioespena eta beste gauza bat dela Euskadiko fundazioen legea betetzea, eta bete dezatela. Euskadiko fundazioen legea betetzen badu, bete egiten du. Beste kontu bat da bakoitzak izan dezakegun iritzia, gehiago edo gutxiago gustatzen ote zaigun, baina azken batean Arkaitzek esaten duen galdera, eta zuk esaten duzu "ez, txostena ez dugu izango", baizik eta apur bat balioespena. Orduan iruditzen zait apur bat



joango garela, hitz egingo dugu, beti bezala azkenean, txoritxo eta loreen inguruan, bakoitzak balioetsi egingo du, baina beste bilkura batean helduko diogu gaiari, orduan atzeratzen jarraitzen da betetzen duen ala ez esatea. Hori da Idazkaritzak egin behar duen txostena.

Ascension Hormazabal Meabe: baina Kontu-hartzaile modura beste txosten bat ere egin behar dut. Baina hori, zein zenbatekoz hitz egiten ari garen jakin behar dut. Hori ez dago ekonomikoki ebaluatuta, batetik legezko atala dago, legea betetzen duena, eta beste batetik ekonomikoki bideragarri izatea da.

Joseba Vivanco Retes: baina hemen legezko atal hori baino ez da aurkezten.

Ascension Hormazabal Meabe: bai, izan ere, ez dago inolako zifra ekonomikorik Udalarentzat fundazioaren sorrerak suposatzen duen kostuaren inguruan, eta funtsezkoa da baliabideen esleipen eraginkorraren inguruko informazioa emateko, izan ere, nire ustez Udalak beregain hartuko duen zenbateko ekonomikoa arabera, aurrekontu-egonkortasuna asko aldatuko da iraunkortasunaz gain, orduan bi gauza dira.

Alkatea: tira, badakigu esfortzu bat suposatuko duela. Eta zaila izango dela. Tira, nik uste dut beste erakunde batzuen aldetik babesak izaren jarraituko dugula, badut konfiantza.

Ascension Hormazabal Meabe: bai, baina guk hartzen baldin badugu guregan, orduan aurrekontuan kontsignatuta izan behar dugu, eta horrek izango du eragina.

Alkatea: bai, baina beste alde batetik diru-laguntzak ere hor ditugu.

Ascension Hormazabal Meabe: diru-sarrerak ditugu... orain arte Aldundikoa baino ez dugu. Aurrerantzean diru-laguntza hori jaso behar ez badugu, gastua osorik udal baliabideekin sartu beharko da aurrekontuan, ondoren jasotzen baldin bada ongi, baina ez dakit...

Arkaitz San Jose Martínez: nik, ideietako bat da, nahiz eta beno, pentsatzen dut zailagoa izango dela erakunde horiek lotzea, fundazioko beste erakundeak ere patrono izatea.

Ascension Hormazabal Meabe: hori izango litzateke logikoena.

Arkaitz San Jose Martínez: baina ohartarazten dizuet Aldundiak ere zalantza egiten zuela patronatuetan sartzearen inguruan gutxienez, eta 2019rako aurreikuspena? Baina noski horrek bere prozesua du, edo bere prozedura, orain arte bezala jarraitzea? Hots, hau guztiau kudeatzen den bitartean, urtarrilak 2, zer gertatuko litzateke?

Alkatea: izan genuen bilkuran, Cristina Diputatua izan zen hartan, zera esan genuen, fundazio baten testuen idazketan aurrera egiten genuen bitartean egoera orain arte bezala mantentzeko interesik bada, baina hori egiteko modua ikusi behar dugu. Eta museoa ez ixteko.

Eta jorrazteko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren bederatziak eta berrogei minutuan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.